

2018KO LAGUNTZEN KATALOGOA

HEMEN GAUDE, ZURE
PROIEKTUARI LAGUNTZEKO
PREST

ENPRESA GARAPENERAKO EUSKAL
AGENTZIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

AURKIBIDEA

1. TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

a. TEKNOLOGIA

Hazitek
Kalifikazio txostenak ondorio fiskaletarako
Elkartek
Emaitek +

b. INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Industria digitala
Zibersegurtasun industriala
Basque Industry 4.0
Mikroenpresa Digitala Inplantalariak
Mikroenpresa Digitala Prestakuntza
Enpresa Digitala
Barnetegi Teknologikoa

c. BERRIKUNTZA

Innobideak Lehiabide
Innobideak Kudeabide
Innobideak Pertsonak
Innobideak Prestakuntza

2. EKINTZAILETZA

Ekintzaile
Basque-Ekintzaileak Fundazioa
Bind 4.0

3. INBERTSIOAK IBILGETUAN

Gauzatu Industria
Indartu

4. INTERNAZIONALIZAZIOA

Gauzatu Kanpo Ezarpenak
Global Lehian
Sakondu
Pilotu
Elkartzen 2025
Internazionalizazio bekak. BEINT 2018
GLOBAL TRAINING 2018 Beka Programa
LANdhome 2018 Programa
2018ko Internazionalizazio Programa

5. ARRISKU KAPITALA

6. AZPIEGITURAK



HELBURUA

EAEko enpresa sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planaren espezializazio alorretan, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak –lehiarako proiektuak nahiz proiektu estrategikoak– gauzatzeko laguntza.



NORI ZUZENDUA

Euskal enpresa egitura (sektore ekonomiko guztiak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

A.- Lehia proiektuetarako (urtekoak).

- Oinarri zientifiko eta teknologikoko produktu nahiz enpresa berrien garapena.
- Proiektuak banaka edo lankidetzan gara daitezke.
- Urteko gutxieneko aurrekontua guztira: 100.000 €; lankidetzan proiektuen kasuan, 50.000 € enpresa bakoitzeko.
- Diru laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %25eraino.
- Diru laguntza ez-itzulgarriaren gehieneko zenbatekoa: 250.000 € onuradun bakoitzeko eta urteko.

B. Proiektu estrategikoetarako (urte anitzekoak, 3 urte gehienez).

- I+Gko proiektu estrategikoak eta 2020 ZTB Planaren espezializazio alorretakoak.
- Trakzio proiektuak, lankidetzan edo bakarka garatuak. 4 milioi €-ko gutxieneko inbertsioa.
- Diru laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %40raino ikerketa industrialeko proiektuetan.
- Diru laguntza: diruz lagundu daitezkeen kostuen %25eraino garapen esperimentaleko proiektuetan.



BALDINTZAK

- Laguntzen efektu sustatzailea bermatzeko, laguntza eskaera aurkezteko dataren ondoren hasten diren proiektuak baino ezin izango dira laguntzoz onuradun izan.
- Tramitazio elektronikoa, erakundearen lege erantzulearen ziurtagiri digitalaren bitartez.
- Lehiaketa bidez.



HELBURUA

Ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten teknikoak egitea.



NORI ZUZENDUA

Euskal enpresa egitura (sektore ekonomiko guztiak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Enpresek aurkeztutako I+Gko jarduera proiektuak ebaluatzeko zerbitzua ematea, eta, ebaluazioa positiboa bada, ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten tekniko bat egitea.

Helburua da euskal enpresetan ikerketa eta garapen jarduerak sustatu eta bultzatzea, eta, horretarako, Sozietateen Zergan aplikatu beharreko kenkari fiskalei segurtasun juridiko handiagoa ematea; hala, ebaluazio tekniko hau eta ondorengo txostena egitea doako zerbitzua da, urterokoa eta foru aldundientzat loteslea.



LAGUNTZA MOTA

Enpresen I+Gko jarduerak, hala badagokio, kalifikatzea, eta horren bidez, Sozietateen Zergan kenkariak lortzen laguntzea.



BALDINTZAK

- Enpresek egindako ikerketa eta garapen proiektuak.
- HAZITEK programari proiektu bat aurkeztu dioten enpresek zuzenean jasoko dute beren txostena, berriz dokumentatu beharrik gabe.

**HELBURUA**

Funtsezko lankidetzak ikerketako proiektuak eta potentzial industrial handiko ikerketa proiektuak egiteko laguntza. Proiektuok ZTBESko eragileek egingo dituzte, 2020 ZTBParenta eta Espezializazio Adimendunerako RIS3 Estrategiaren barruan.

**NORI
ZUZENDUA**

ZTBESko eragileak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Funtsezko lankidetzak ikerketako proiektuak. Funtsezko ikerketako proiektuak, ZTBESko eragileek lankidetzak bidez eginak, 2020 ZTBParenta eta RIS3 Estrategiaren lehentasunezko alorretan ezagutzak handitzea helburu. Gutxienezko aurrekontua guztira: 500.000 € proiektuko eta 50.000 € parte hartzen duen erakunde bakoitzeko. 2 urtera arteko iraupena.

Potentzial industrial handia duten ikerketa proiektuak. Funtsezko ikerketa orientatutako proiektuak edo ikerketa industrialekoak, ZTBESko enpresa arloko I+Gko unitateek **gidatuak**, trakzio ahalmen eta merkatura iristeko ahalmen handikoak. Gutxienezko aurrekontua guztira: 100.000 € proiektuko eta 50.000 € parte hartzen duen erakunde bakoitzeko. 2 urtera arteko iraupena.

Interes bereziko ekintza osagarriak. Eskaintza eta eskaera teknologikoaren arteko bitartekaritza proiektuak, eskaintza-eskaera bitartekaritza organismoek eta hedapen organismoek landuak, honako hauek egiteko: zaintza eta prospektiba teknologikoko azterlanak, lankidetzak bultzatzeko jarduketak, transferentziako I+G+b-ko kudeaketa jarduerak eta I+G+b-a nazioartekotzeko jardueretan parte hartzea sustatzea. Bi urtera arteko iraupena.

**BALDINTZAK**

- Laguntzen efektu sustatzailea bermatzeko, laguntza eskaera aurkezteko dataren ondoren hasten diren proiektuak baino ezin izango dira laguntzon onuradun izan.
- Tramitazio elektronikoa, erakundearen lege erantzulearen ziurtagiri digitalaren bitartez.

**HELBURUA**

Teknologia Zentrozen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentrozen (IKZ) emaitza eta gaitasunak hobetu eta merkatura orientatzea, I+G+b-aren balio katean zehar lan eginez.

**NORI
ZUZENDUA**

Teknologia Zentroak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

**LAGUNTZARE
N
DESKRIPZIOA**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Teknologia Zentrozen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentrozen jarduera ez-ekonomikoa babestera bideratutako laguntzak. Zentzoon jarduera globalaren emaitzak ebaluatuta eta aztertuta esleituko da finantzaketa.

**LAGUNTZA
MOTA**

Erakunde onuradunak deialdiari dagokion urte naturalean egiten duen jarduera ez-ekonomikoaren kostu osoaren %100erainoko diru laguntza.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Industria digitala

ALDIA:
Argitaratzeko zain - 2018/09/28



HELBURUA

EIKTak manufaktura industrialeko enpresa txiki eta ertainetan txertatzen laguntzea.



NORI ZUZENDUA

Produktu industrialen diseinu eta muntaketa lanetan diharduten manufaktura industrialeko enpresa txiki eta ertainak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

EIKTak manufaktura industrialeko enpresa txiki eta ertainetan txertatzearekin lotutako proiektuak honako arlo hauetan landuko dira: hornidura katea, informazioa, produktuaren bizi zikloa, produkzio prozesuaren kontrola, datuen atzematea plantan, prebentziozko mantentzea, logistika, zerbituzazio sensorika, produktuari eta prozesuari lotutako sensorika, zerbitzu digitalen plataformen garapena edo horietan txertatzeko lanak, B2B nahiz B2C proiektuen garapena.



LAGUNTZA MOTA

Diru laguntza gastu hautagarrietan (aholkularitza, ingeniaritza, hardwarea eta softwarea):

- Mikroenpresa eta enpresa txikia: %50.
- Enpresa ertaina: %30.

Urteko gehieneko diru laguntza 18.000 €-koa izango da proiektuko.

Mugak: hardwarea (4.500 €), softwarea (4.500 €), aholkularitza gastuak (18.000 €), ekitaldian zehar diruz lagundu daitekeen jarduketara bat edo gehiago egiteko.



BALDINTZAK

- 2 hilabeteko epea dago argitaratu aurretik hasitako proiektuak aurkezteko eta 2018-01-01era arte.
- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Gauzatzeko epea: 12 hilabete.



HELBURUA

Helburua da zibersegurtasun industrialia bultzatzea, bereziki zibererasoen aurrean babes sistemen konbergentziari eta integrazioari heltzen dioten proiektuak, manufaktura industrialeko enpresetako IT/OT (Information Technology / Operational Technology) inguruneetarako.



NORI ZUZENDUA

Manufaktura industrialeko enpresak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Zibererasoen aurrean babes sistemen konbergentziari eta integrazioari heltzen dioten proiektuak, IT/OT (Information Technology / Operational Technology) inguruneetarako; urruneko sarbideen eta informazioaren babesa; zibersegurtasunaren diagnostikoa eta ebaluazioa...



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren norainokoa: onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien %50. Diru laguntzaren muga 18.000 €-koa izango da proiektuko.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak:

- Aholkularitza edota ingeniarietza gastuak.
- Hardwarea.
- Softwarea.

Urteko gehieneko diru laguntza 18.000 €-koa izango da enpresako.



BALDINTZAK

- 2 hilabeteko epea dago argitaratu aurretik hasitako proiektuak aurkezteko eta 2018-01-01era arte.
- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Proiektuak gauzatzeko epea: 12 hilabete.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Basque Industry 4.0

ALDIA:
Argitaratzeko zain - 2018ko ekaina



HELBURUA

Helburua da hornitzaile teknologikoetatik enpresa industrialetara teknologia transferitzeko ikerketa industrialeko nahiz garapen esperimentaleko proiektuei laguntzea, fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTen arloan, demostrazio efektua eduki eta, horri esker, EIKTetan garatutako I+G proiektuen emaitzak merkatura azkarrago transferitu ahal izateko.



NORI ZUZENDUA

Manufaktura industrialeko enpresak (banakako proiektuak nahiz balio katea osatzen duten enpresen arteko lankidetzak proiektuak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Proiektuak arlo honetakoren batekin loturik egon beharko dute, fabrikazio aurreratuari aplikatutako CPSen alorrean (Cyber Physical Systems): zibersegurtasuna eta komunikazio industrialak - cloud computing - big data - analitika aurreratua eta business intelligence - lankidetzazko robotika - errealitate areagotua - ikusmen artifiziala - sentsorika - material metaliko eta aurreratuen diseinua eta gehikuntzako fabrikazioa (zeramikak, konpositeak, etab.).



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren norainokoa: onartutako gastu eta inbertsioen %25 + %15, baldin eta proiektuan enpresa baten eta ikerketako eta ezagutzak hedatzeko organismo bat edo gehiagoren arteko lankidetzak efektiboak badago. Diru laguntzaren muga 150.000 €-koa izango da proiektuko (lankidetzak proiektuetan 300.000 € gehienez ere). Proiektuen gutxieneko aurrekontua: 75.000 €.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak:

- “I+Gko eragileak” jardundako orduengatiko gastuak, planta industrialeko lagun egitea eta aholkularitza barne.
- “Ezarleak” jardundako orduengatiko gastuak (aholkularitza eta ingeniariak enpresak).
- Eragile teknologikoak eskaintutako jabetza industrialak eskuratzeko gastuak.
- Hardware eta softwareko inbertsioak edota gastuak (Aktiboen Sare Konektatua barne).
- Enpresa onuradunaren barne langileen gastuak, zeinak diru laguntzaren xede den proiektuari egotzi zaizkion.



BALDINTZAK

Urteko gehieneko diru laguntza 150.000 €-koa izango da proiektuko, eta 200.000 €-koa enpresako.

- Proiektuek TRL 5etik TRL 9ra bitarteko mailan kokaturik egon beharko dute (Technology Readiness Levels).
- Lehiaketa bidez.
- Gauzatzeko epea: 12 hilabete.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Mikroenpresa Digitala Inplantariak

ALDIA:
2018ko urtarrila - 2018ko abendua



HELBURUA

Doako Aholkularitza Teknologikoko zerbitzu honen helburua negozioa hobeto kudeatu eta sustatzea da, mikroenpresari eraldaketa digitalean laguntzeko; horretarako, era praktikoan, pertsonalizatuan eta neurritan ezartzen dira teknologiak (EIKT soluzioak), eta horrek hobetu egiten du enpresa lehiakortasuna.



NORI ZUZENDUA

SPRIren atarian, zerbitzuaren webgunean [izena emateko inprimakia](#) betez eskaera egiten duten mikroenpresa, autonomo eta ekintzaileak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

EIKT soluzioak –[EIKT soluzioen katalogoan](#) eskuragarri– ezartzeko aholkularitza teknologikoko zerbitzuak lagundu egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko mikroenpresa, autonomo eta ekintzaileei balio erantsia ematen duten EIKTen erabilera intentsiboan txertatzen, haien negozio eredua ingurune digital berrira moldatu eta eraldatuz, aholkularitza pertsonalizatu, neutral, doako eta enpresa bakoitzaren gaitasunen neurritan egindakoaren bitartez.

Ezarritako teknologiak era intentsiboan erabiliz, parte hartzaileek berehalako emaitza ukigarriak lortzen dituzte, hala nola: salmentak handitzea (parte hartzaileen %25), barne kudeaketa optimizatuz kostuak eta denborak aurreztea (%45), bezeroen kaptazioa hobetzea (%65).



LAGUNTZA MOTA

EIKT soluzioen doako ezarpena inplantari-aholkulari teknologiko baten eskutik egiten da. Inplantalaria mikroenpresa, autonomo edo ekintzailearen instalazioetara joaten da lanaldi erdiz teknologiak egoki erabiltzen eta lehiakortasunean hobera egiten laguntzera. Lehiakortasuna zabaltzen duten tailer teknologikoetara joanda, ezarpen individualizatua indartzen da, negozioetan, besteak beste, honako arlo teknologiko hauek txertatzen direla eta: gailuen bidezko mugikortasuna, fakturazio elektronikoa eta zibersegurtasuna.

Ezarpenaren ondoren, eskatzaileak segimendu jarraitua eta kontsulta teknologikoak ebazteko zerbitzu bat dauka, lehiakortasunean hobetzen laguntzen dion teknologia egoki erabiltzeko.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Mikroenpresa Digitala – Prestakuntza

ALDIA:
2018ko urtarrila - 2018ko abendua



HELBURUA

Prestakuntza zerbitzu honen xedea mikroenpresak dira. 2 orduko ikastaroak emanez, informazioaren teknologien erabileran trebatzen dira mikroenpresak, lehiakortasunean hobera egiteko.



NORI ZUZENDUA

Mikroenpresak, autonomoak eta ekintzaileak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Hedapena eta sentsibilizazioa, autonomoen eta mikroenpresen negozioak hobetzen dituzten tresna digitalak erabiltzeko: bi orduko ikastaroak egiteko eskaintza, KZGunea Zentroen Sarean, negozioak teknologia berrietan txertatzeari buruzko prestakuntza jasotzeko. [Ikastaroen katalogoa](#). Hona hemen ikastaro batzuk:

- Nola izan produktiboagoa: hori lortzen lagunduko dizuten aplikazioak, metodoak eta ohiturak.
- METAPOSTA: Interneteko postontzi, kutxa gotor eta gordailu soluzioak zure enpresaren dokumentuetarako.
- Egokitu zure enpresa eta webgunea LOPD eta LSSI legeetara.
- Blog korporatiboa: aholkuak eta praktika onak, irakur zaitzaten.
- Marketin mugikorreko estrategiak zure negozioarako.



LAGUNTZA MOTA

- IKTei buruzko prestakuntza ikastaroak. 2 ordu irauten dute eta KZGunea Zentroen Sarean ematen dira.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Enpresa Digitala

ALDIA:
2018ko urtarrila - 2018ko abendua



HELBURUA

Helburua da enpresa lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea, eta, horretarako, goraka datozen EIKTei buruzko **sentsibilizazioa eta trebakuntza** sustatzea eta, era berean, negozio digital berriak garatzen laguntzea; hori guztia hazkunde ekonomikoaren faktore diferentzial gisa.



NORI ZUZENDUA

Enpresa eta lanbide alorrak; bereziki, beren negozio prozesuetan EIKTak aplikatzen hasi nahi duten enpresa txiki eta ertainak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

- Parke teknologikoen inguruko edo beste udalerrri eta eskualde batzuetako enpresetan EIKTak sustatzeko jardueren antolaketa (jardunaldiak, tailerrak, mintegiak, ikastaro teknikoak, ekitaldi bereziak, etab.), beste eskualde batzuetako garapen agentziekin lankidetzan.
- EUSKADIKO 2020 AGENDA DIGITALEAN jasotako egitasmo eta programen kudeaketari laguntzea:
 - Eusko Jaurlaritzaren IKANOS proiektuaren garapenari laguntzea, europar herritarren “konpetentzia digitalak” sustatzeko europar eremuaren barruan.
 - Software librea duten ordenagailuak berrerabiltzeko proiektua (PC Lagun).
 - Industriaren alorrean zibersegurtasunaren inguruko proiektuak diseinatzeko laguntzea, BCSCrekin lankidetzan.
 - StartUpak azeleratzeko BIND 4.0 egitasmoarekin lankidetzan jardutea.



LAGUNTZA MOTA

EIKTen erabilerari buruzko trebakuntza hiru lurraldeetan aldizka egingo diren kongresu, mintegi eta jardunaldietan mamituko da. Jarduerok Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Teknologikoen Sarean egingo dira nagusiki.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Barnetegi Teknologikoa

ALDIA:
2018ko urtarrila - 2018ko abendua



HELBURUA

EIKTekin lotutako gaiak **hedatzea** eta horien gaineko **sentsibilizazioa** sustatzea. Egiten den lana abiapuntu gisa erabili nahi da parte hartzaileek gaia beren enpresa barruan landu dezaten, eta enpresa txiki eta ertainei ezagutza horrek, eta ezagutza horren aplikazioak, emaitzak optimizatzen lagundu diezaien.



NORI ZUZENDUA

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein jarduera sektoretan diharduten enpresa txiki eta ertainetako zuzendari eta gerenteak, batez ere enpresa industrialetan agintzeko ahalmena daukaten pertsonak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

“**Learn by doing**” (*eginez ikasi*) eredu eta metodologiari jarraitzen dion jardunaldi intentsibo bat da, zeinaren bitartez bertaratutakoek prestakuntza jasotzen baitute dena delako gaiari buruz. Ondoren, gaia taldean lantzen da irakasle adituen aholkularitzarekin, lor daitezkeen onurak nabarmenduz eta kasu errealak erakutsiz.

Hori guztia 10-15 pertsonako taldetan antolatuta eta landetxe batean, bertaratuak beren ohiko bizimodutik aldendu daitezten, eta EIKTen munduan buru-belarri murgildu.

Bost gai multzo daude: 4.0 Industria, turismoa, EIKTak, zibersegurtasuna eta datuen analisia.



LAGUNTZA MOTA

Egun osoko jardunaldia. 10 orduko iraupena landetxe desberdinetan.

AURREKO URTEEKIKO DIFERENTZIAK

- Proiektu tipologiaren zabalpena.
- Hiru programak bakar batean integratuta (Innobideak).
- Enpresa bakoitzeko proiektu bakarra egitearen muga kenduta (lerro bakoitzean).
- Hornitzaile gisa, ZTBESko eskaintza-eskaera bitartekaritza eragileek eta LHko ikastetxe publikoetakoek ere parte har dezakete.
- LEHIABIDE:
 - Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira produktu, prozesu, merkatu eta antolaketa arloko berrikuntza proiektuak.
 - Trakzio enpresen eta beraien hornitzaileen arteko lankidetzaren sustapena lankidetzarako proiektuen bidez.
 - Banakako proiektuetan, laguntza 45.000 €-tik 50.000 €-ra bitartekoa da gehienez ere.
 - Lurralde, sektore edo enpresa eragileekin lankidetzan egindako proiektuetan, bi enpresa egongo dira gutxienez (lehen 3).
- PERTSONAK:
 - Lerroaren egituraren sinplifikazioa: %50eko diru-laguntza tarte bakarra, proiektuko 50.000 €-ren mugarekin (lehen 30.000 edo 60.000 €, proiektu motaren arabera).
- KUDEABIDE:
 - “Ekintza plana” irizpidea ezabatu egin da, eta puntuazioak birbanatu (hiru lerroetarako homogeneousazioa).

3 LERROEN EZAUGARRI KOMUNAK

- Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak.
- Beste laguntza lerro batzuetan sartzen diren proiektuak ez dira kontuan hartzen (I+G, internazionalizazioa, industria digitala...).
- 2 hilabeteko epea dago aurretik hasitako proiektuak aurkezteko eta 2018-01-01era arte.
- Aurrerakina: onartutako diru laguntzaren %60.
- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Proiektuaren gehieneko iraupena: 12 hilabete.
- Proiektua amaitzeko muga data: 2019ko urriaren 15a.

1 | TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Innobideak - Lehiabide

ALDIA:
Argitaratzeko zain - 2018/09/28



HELBURUA

Berrikuntza proiektuak (produktua, prozesua, merkatua eta antolaketa), dimentsio handiagokoak eta trakzio enpresen eta beren hornitzaileen arteko lankidetzak garatzekoak.



NORI ZUZENDUA

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

1. Berrikuntza proiektuak egiteko laguntza (banakakoak, lankidetzan edo trakzio enpresek gidatutakoak eta beren balio katean txertatutako enpresa hornitzaileekin batera egindakoak), arlo hauetan: produktua, prozesua, merkatua eta antolaketa.
2. Enpresa dimentsioa handiaraziko duten operazioak zehaztu, analizatu eta diseinatzea.



LAGUNTZA MOTA

- **Banakako proiektuak:** proiektuaren gastu hautagarrien %50. Proiektu bakoitzeko 50.000 € gehienez.
- **Lankidetzak proiektuak:** gastu hautagarrien %60 (gehienez ere 35.000 € enpresako eta 100.000 € proiektuko).
- **Gastu hautagarriak:** (i) kanpo enpresekiko kontratazio gastuak, (ii) proiektuaren gauzapenean sartuta dauden pertsonen barne gastuak (aurreko kontzeptuaren %30 gehienez), (iii) sektore, enpresa edo lurralde eragileen kontratazio gastuak (10.000 € gehienez).



BALDINTZAK

- **Banakako proiektuak:** gutxienez 10 enplegu dauzkaten enpresak.
- **Lankidetzak proiektuak:** gutxienez 5 enplegu dauzkaten enpresak. Parte hartzen duten enpresen multzoak 20 enplegu eduki behar ditu gutxienez.

**HELBURUA**

Kudeaketa aurreratuko printzipio, tresna eta metodologiak aplikatzen eta ezartzen lagunduz, Euskadiko enpresen lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea, eta horretarako hasierako kontraste bat egin eta proiektu pilotuak edota finkapen proiektuak lantzea.

**NORI
ZUZENDUA**

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Hasierako kontrastea: EUSKALITen lankidetzarekin, kudeaketa aurreratuko ereduarekiko posizionamendu kontraste bat egiten du enpresak.

Proiektu pilotuak: kudeaketa aurreratuko metodologiak praktikan aplikatzeko proiektuak, aldez aurreko trebakuntzarekin (prestakuntza).

Finkapen proiektuak: kudeaketa aurreratuko metodo eta tresnak ezarri eta hartzeko proiektuak.

**LAGUNTZA
MOTA**

Hasierako kontrastea dohainik.

Proiektu pilotuak: moduluen %60tik %70era bitarteko diru laguntza.

Finkapen proiektuak: kanpo aholkularitzako kostuen %60ko diru laguntza.

- 12.000 € gehienez 5 enplegutik 49ra bitarteko enpresentzat (foru aldundiaren arabera).
- Proiektu bakoitzeko 25.000 € gehienez 50 enplegu edo gehiago dauzkaten enpresentzat.

Programa hau Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera garatzen da, EUSKALITen lankidetzarekin.

**BALDINTZAK**

Gutxienez 5 enplegu dauzkaten enpresak (SPRIk gutxienez 50 enplegu dauzkaten enpresei lagunduko die, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, berriz, 5 enplegutik 49ra bitarteko enpresei.



HELBURUA

Enpresetan langileen parte hartzea (kudeaketa, emaitzak edota jabetza) sustatzea xede duten ekintzen bitartez lehiarako hobekuntza bultzatzea, eta proiektu partekatuetan oinarritutako erduetarako bidean aurrera egitea.

NORI
ZUZENDUA

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

Honako helburu hauek dituzten egitasmoak: enpresako pertsonen parte hartze handiagoa izatea kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan; eta gardentasun, konfiantza, ekitate, egonkortasun eta barne lankidetzaren bidez oinarritutako ereduaren antolaketa edota aurrerabidea bultzatzea.

LAGUNTZA
MOTA

- **Diru laguntza:** gastu hautagarrien %50, proiektu bakoitzeko 50.000 €-ren gehieneko mugarekin.
- **Gastu hautagarriak:** (i) kanpo enpresekiko kontratazio gastuak, (ii) proiektuaren gauzapenean sartuta dauden pertsonen barne gastuak (aurreko kontzeptuaren %30 gehienez).



BALDINTZAK

Gutxienez 10 enplegu dauzkaten enpresak.

**HELBURUA**

Euskadiko enpresetako zuzendari taldeetako kideei ezagutzera ematea kudeaketa aurreratuaren funtsezko elementuak eta negozio eredueta balio proposamenak eta berrikuntza hobetzen laguntzen duten gakoak.

**NORI
ZUZENDUA**

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukaten jarduerak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotuta dauden jarduerak egiten dituzten enpresetako zuzendari taldeetako kideak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA****Prestakuntza saio independenteak honako gaien inguruan:**

- Estrategia.
- Bezeroak.
- Pertsonak.
- Gizartea.
- Berrikuntza.
- Emaidzak.
- Negozio ereduak.
- Jabetza intelektual/industrialia.

**LAGUNTZA
MOTA**

Prestakuntza saioak dohainik.

**BALDINTZAK**

EAEEn dauden enpresetako zuzendari talderen bateko kide izatea.

**HELBURUA**

Enpresa eta berrikuntza zentro batean enpresa ideia bat umotzen laguntzea. Ideia enpresa bihurtzen bada, aldeko maileguak eskura daitezke.

**NORI ZUZENDUA**

Pertsona fisikoak, mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak eta enpresa industrial handiak, edo lotutako zerbitzuak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

1. laguntza:
Enpresa industrialari edo izaera berritzailea edota teknologikoa duten zerbitzuei lotutako ideia bat umotzeko laguntza, gehienez ere 18 hilabeterako.

2. laguntza:
Ideia amaitzen bada negozio plan bideragarri batekin eta enpresa berri bat eratzen bada (enpresa txiki edo ertaina) LUZAROn finantzaketa eskuratu ahalko da, beranduen jota eskaera egin aurreko urtean.

**LAGUNTZA
MOTA**

Gehienez ere 30.000 €-ko diru laguntza, ez itzultzekoa, eta diruz lagundu daitezkeen gastuen %100eraino.

Inbertsioetarako maileguak, 36 hilabeteko gehienezko epearekin, aktibo finko berriak eskuratzeko, eraikuntzak sartu gabe, 3 urtetan gutxienez 3 enplegu sortzekotan.

**BALDINTZAK**

Aktibo finko berrien %70eko laguntza gehienez, eta inbertsioaren %30 sustatzaile berriak jarriko du ordaindutako kapital sozialaren bidez.

Inbertsioaren %70eraino, 40.000 €-tik 180.000 €-ra bitarteko mailegu kopuru batekin (7 urte, gabealdiko 2 urterekin, euriborra + %1,25 eta sustatzailearentzako bermerik ez).

Formalizazio gastuak eta lehen 2 urteetako interesak SPRIk ordaintzen ditu.

Ez itzultzeko diru laguntza (minimis).

**BALDINTZAK**

Pertsona partikularra, talde sustatzailea edo sortu berria den enpresa bat (urtebetetik beherakoa).



HELBURUA

Enpresa eta berrikuntza zentro batean enpresa ideia bat umotzen laguntzea. Enpresa berriak aldeko maileguak eskura ditzake.



NORI ZUZENDUA

Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertain industrialak, edo Ekintzailereren onuradun izandako zerbitzu lotuak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

1. TARTEA:

Finantzaketa, enpresa sortu eta berehala.

2. TARTEA:

Ondorengo fase batean, hazteko potentziala daukaten enpresentzako finantzaketa. Hiru kategoriatan sailkatzen dira: potentzial handikoak, potentzialdunak eta IKT proiektuak.



BALDINTZAK

- EKINTZAILEREN onuraduna.
- Eraketatik 3 urte gehienez.
- Hazteko potentziala daukaten proiektu industrialak edo industriara lotutako zerbitzuak.
- Gutxieneko kapital soziala: 25.000 €.
- Gehieneko ekarpena: 100.000 €.
- Ekintzailereren onuraduna.
- Eraketatik 5 urte gehienez.
- Hazteko potentziala daukaten proiektu industrialak edo industriara lotutako zerbitzuak.

	Fondo propioak	Salmentak	Enpl.	Ekarpena
1. segmentua	200.000	400.000	10	400.000
2. segmentua	100.000	250.000	5	250.000



HELBURUA

Laguntza 3 norabidetan:

- **STARTUPAK: proiektu erreala fakturazio errearekin, bezero handi baten erreferentzia, azelerazioa; finantzaketa edota inbertsioa** eskuragarri.
- **ENPRESAK: talentua** eskuratzeko aukera, **teknologia eta soluzio berritzaileak** sartzeko modua, **dibertsifikazio** aukerak.
- **EUSKADI: munduko ekintzailtza** industrialaren mapan **posizionamendu** bat, sektore industrialaren **hobekuntza eta garapena**.



NORI ZUZENDUA

Munduko edozein lekutako startupak, alor industrialean aplika daitezkeen **teknologia berrietan oinarritutako produktu edota zerbitzuak** dauzkatenak, **beren zerbitzuaren/produktuaren konfigurazioa amaitzeko moduan daukatenak edo dagoeneko merkatuan daudenak.**

Orain arte industriara eta energiara bideratu izan da eta, berritasun gisa, edizio honetarako HEALTH ere bai.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Azeleratzaile batean ohikoak direnak:

- Languneak eta euskarri teknologikoa.
- Prestakuntza.
- Mentoringa.
- Networkinga.
- Laguntza ekonomikoak eskuratzeko bidea.
- Nazioarteko startupak ostatzeko laguntza.
- Bisibilitatea eta posizionamendua.
- Alumni.

Munduko lehen azeleratzailea startupe maila handieneko bezero industrialengana iristea bermatzen diena.

www.bind40.com



HELBURUA

Oinarri teknologikokoak edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko laguntzak.



NORI ZUZENDUA

Erauzketa, eraldaketa eta produkzio jarduerak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak, eta aurrekoekin lotutako zerbitzu teknikoak ematen dituztenak (produktuari-prozesuari lotuak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Inbertsio berrietarako laguntza, honako kategoria hauetan: jabetza industrialak eta patenteak, aplikazio informatikoak, lurrak eta ondasun naturalak, eraikinak, instalazio teknikoak, makinak, tresneria eta informazio prozesuetarako ekipamenduak.

24 HILABETE + GABEALDIA + 5 ITZULKETA



LAGUNTZA MOTA

Aurrerakin itzulgarriak, laguntzeko moduko inbertsioaren %25 - %35ekoak izan daitezkeenak:

- 1.500.000 €-ren muga
- Gehienez ere 150.000 € sortutako enplegu eta
- Gehienez ere 100.000 € enplegua mantenduz gero.

Oinarri teknologikoko enpresa txikiak: inbertsioaren %35eko aurrerakinak.

Soilik berritzaileak diren enpresa txikiak: inbertsioaren %30eko aurrerakinak.

Oinarri teknologikoko enpresa ertainak: inbertsioaren %30eko aurrerakinak.

Soilik berritzaileak diren enpresa ertainak: inbertsioaren %25eko aurrerakinak.



BALDINTZAK

Proiektuaren gutxieneko inbertsioak 120.000 €-koa izan behar du.

IRIZPIDE SUSTATZAILEA (aurre-eskaera: aurre-eskaera aurkezteko aldiaren eta programaren deialdia argitaratu ondorengo eskaera formalaren arteko inbertsioak onartzen dira).



HELBURUA

Aktibo finakoak eskuratzeko laguntza, modernizatzeko eta laneko segurtasuna handitzeko.



NORI ZUZENDUA

Erauzketan, eraldaketan, produkzioan eta zerbitzu tekniko aurreratuetan diharduten enpresa industrialak, baita zerbitzu logistikoetako enpresak ere –garraioak alde batera utzita–, baldin eta laguntzaren xede diren inbertsioak kokatzen badira Ibaizabal itsasadarraren ezker aldean (Bizkaia), Oiarzualdean (Gipuzkoa) edo EAEko urteko batez bestekoaren %20 gorago dabilen langabezia tasa daukaten udalerrietan.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Ez itzultzeko diru laguntzak (inbertsio produktiboaren %10).



LAGUNTZA MOTA

Eman beharreko diru laguntzak, berez, laguntzeko moduko inbertsioaren %10 izango dira, eta inola ere ez dute 3.000.000 €-ko kopurua gaindituko enpresa bakoitzeko.



BALDINTZAK

Enpresaren **BALIABIDE PROPIOAK**, diru laguntzak kontuan hartu barik, gutxienez diruz laguntzeko modukotzat jotzen den inbertsioaren zenbatekoaren %25era iritsiko dira.

- Enpresa handiek 2.000.000 €-ko gutxienerako inbertsio onartua egin beharko dute, eta inbertsio horri eta hasierako enpleguari gutxienez bost urtean eutsi, edo inbertsioaren gutxienera iritsi gabe, 50 enplegu garbi sortu. (SOILIK IZENDATUTAKO GUNEETAN ESKURA DAITEKE, EZ UDALERRIETAN).
- Enpresa txiki eta ertainek 500.000 €-ko gutxienerako inbertsio onartua egin beharko dute, eta inbertsio horri eta hasierako enpleguari gutxienez hiru urtean eutsi, edo inbertsioaren gutxienera iritsi gabe, 15 enplegu garbi sortu.

IRIZPIDE SUSTATZAILEA (aurre-eskaera: aurre-eskaera aurkezteko aldiaren eta programaren deialdia argitaratu ondorengo eskaera formalaren arteko inbertsioak onartzen dira).



HELBURUA

Kanpoan ezarpen produktiboak sortu eta garatzeko laguntzak.



NORI ZUZENDUA

Kanpo ezarpen produktiboa daukaten enpresa txiki eta ertainak (planta berri baten irekiera edota atzerriko sozietateen erosketa, euskal kapitala >%50). Higiezin, finantza, aseguru eta defentsa sektoreak alde batera utzita.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

Inbertsio berriak egiteko edo atzerriko sozietateak erosteko –partaidetza nagusia hartuta– laguntza.

URTEBETEKO GABEALDIA + 5 ITZULKETA



LAGUNTZA MOTA

Aurrerakin itzulgarriak (%0ko finantza kostua), laguntzeko moduko inbertsioaren %25-%30ekoak izan daitezkeenak, 1.000.000 €-ren inbertsio mugarekin.

Enpresa txikiak: inbertsioaren %30.

Enpresa ertainak: inbertsioaren %25.



BALDINTZAK

Proiektuaren gutxieneko inbertsioak 120.000 €-koa izan behar du. Gehienez ere 36 hilabetean egin beharrekoa.

IRIZPIDE SUSTATZAILEA.



HELBURUA

Banakako eta lankidetzazko nazioarteko jarduerak sustatzeko laguntzak.



NORI ZUZENDUA

Enpresa txiki eta ertainak, partzuergoak eta enpresa txiki eta ertainen salmenta taldeak.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

Sustapen gastuetarako diru laguntza, ez itzultzekoa, enpresaren umotze fasearen arabera: hasiera - finkapena - ezarpena.



LAGUNTZA MOTA

Umotzearen arabera:

- Internazionalizazio plana
- Azoketara joatea
- Bidaiak
- Alderantzizko misioak
- Sustapen materiala
- Ezarpenaren bideragarritasun azterketak
- 1. ezarpen gastuak
- Talentuaren aktibazioa.

Gastuen %40, 20.000 €-tik 40.000 €-ra bitarteko mugarekin, umotzearen arabera.
Talentua aktibatzearen kostuen %50.



BALDINTZAK

Indarrean dagoen internazionalizazio plan bat edukitzea.
Minimis.

4 | INTERNAZIONALIZAZIOA

Sakonu



HELBURUA

Enpresa baten lehiarako posizioa hobetzea, enpresa hori konparatiboki ahula den merkatuetan.



NORI ZUZENDUA

Oso internazionalizatuta dauden enpresa txiki eta ertainak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Lehiarako egoera hobetzeko gastuetarako diru laguntza, ez itzultzekoa.



LAGUNTZA MOTA

Segidako ebazpenekoa.

Bi eskaera enpresako.

Merkatu bat eskaerako.

Gastu motak:

- Merkatu azterketa - homologazio gastuak - ordezkari/banatzaile bilaketa...
- Azoketara joatea.
- Bidaiak.
- Alderantzizko misioak.
- Sustapen materiala eta publizitatea.

Gastuen %30; 20.000 €-ren muga eskaera bakoitzeko – 25.000 € baldin eta eskaera kluster baten bidez egiten bada.



BALDINTZAK

Esportazio zifra > fakturazioaren %50.
Minimis.

**HELBURUA**

Atzerrian inbertsio publikoko proiektu pilotuak finantzatzen laguntzea.

**NORI ZUZENDUA**

Enpresa txiki eta ertainak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Proiektua martxan jartzeko gastuetarako diru laguntza, ez itzultzekoa.

**LAGUNTZA MOTA**

Segidako ebazpenekoa.

Eskaera ugari enpresako – proiektu onuradun bakarra.

Proiektuaren diseinuarekin eta inplementazioarekin lotutako gastuak, eta emaitzen bilketa eta analisia, errepikagarria izan litekeela eta.

Inbertsioaren %50; 50.000 €-ren mugarekin.

**BALDINTZAK**

Gehieneko inbertsioa: 150.000€.

Proiektua garatzeko eskumena daukan organismo publiko baten akordioa edukitzea.

Minimis.

**HELBURUA**

Lankidetzta bidezko internazionalizazioa sustatzea.

**NORI ZUZENDUA**

EAEko hiru lurraldeetan presente dauden elkarte sektorialak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Sustapen arloko jarduera gastuetarako diru laguntza, ez itzultzekoa.

**LAGUNTZA MOTA**

Ez da lehiaketa bidezkoa.
Zuzeneko misioak.
Alderantzizko misioak.
Azoketan parte hartzea.
Sustapen eta hedapen elementuak.

Gastuen %50; 100.000 €-ren mugarekin.

**BALDINTZAK**

Minimis.



HELBURUA

Gazte tituludunak trebatzea, eta horretarako, ezagutza akademikoa eta kanpoko merkatuen inguruko esperientzia praktikoa eskaintzea, organismo sustatzaileen eta internazionalizatutako enpresen bitartez mugikortasuna ahalbidetuz. EAEko enpresei aukera ematen die behar bezalako prestakuntza teknikoa daukaten eta askotariko ingurune kulturaletan jardutera ohituta dauden pertsonak eskuragarri edukitzeko.



NORI ZUZENDUA

100 gazte tituludun, ahal bada kudeaketa profila eta profil teknikoa daukatenak. Internazionalizatutako enpresak.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

- Hamabi hilabete irauten duen **bulego fasea** (kanpo sarea, ekonomia eta merkataritza bulegoak...): bekadunak jasotzen duen zuzkidura, berez, garraio, mantenu, ostatu, bisa eta abarreko gastuetarako da, eta destinoaren arabera kalkulatzen da. Bekadunak, gainera, estaldura dauka osasun, istripu, bidaia eta erantzukizun zibileko gastuetarako.
- 8 hilabete irauten duen **enpresa fasea**: bekadunaren zuzkidura berdina da. Dena den, enpresak esleitutako destinora joan-etorria egiteko bidaia gastu bat ordaintzen du eta, hala badagokio, baita bisa lortzeko gastuak ere.



BALDINTZAK

Enpresentzat: Atzerrian ezarrita egotea / Prestakuntza plan bat lantzea / Tutore bat identifikatu eta izendatzea / BEINT programan kolaboratzen duten erakundeen departamentu webguneko datu basean izena ematea.

4 | INTERNAZIONALIZAZIOA GLOBAL TRAINING 2018 Beka Programa



HELBURUA

Unibertsitate titulua nahiz LHko goiko mailako titulua daukaten gazteen mugikortasun internazionala indartzea, eta horretarako, atzerrian ezarrita dauden atzerriko zein EAEko enpresetan praktika profesionalak egitea.



NORI ZUZENDUA

Unibertsitate titulua nahiz LHko goiko mailako titulua daukaten gazteak, espezialitatea edozein dela ere. LHko gazteek atzerrian ezarrita dagoen EAEko enpresa batean egin ahal izango dituzte praktikak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Zuzkidura kalkulatu da garraioa eta 6 hilabeteko ostatua, mantenua, bisa eta halako gastuak ordaintzeko. Ez da destinoaren araberako bereizketarik egiten. Modu osagarrian, laguntza mediko, istripu eta bidaiari aseguru bat ematen die programak bekadunei.



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Urtero lehiaketa bidez hautatzen diren erakunde laguntzaileen bitartez kudeatzen da programa. Normalean: Novia Salcedo Fundazioa / EHU-UPV / MU eta Deustuko U aliantza / IKASLAN eta AFM aliantza / HETEL, CONFEBASK eta ADEGI aliantza / Merkataritza Ganberen aliantza / Gizarte Segurantzako Sustapena eta GARAPEN aliantza.

Lehiaketa fasean erakundeei dagokie atzerriko enpresetan praktikak egiteko aukera ematea. Erakundeek lehiaketa gidatzen duen elementu objektibo bat, publikoki zuzkitutako 6 hilabeteak beste 6 hilabete gehigarriekin luzatzeko aukera eskaintzea da.

**HELBURUA**

Nazioarteko karrerak egiten ari diren tekniko kualifikatuen eta zuzendarien itzulera ahalbidetzea eta, era berean, nazioarteko merkatuetara bideratutako enpresen egiturak sendotzea, behar lezaketen giza kapitala eskainiz.

**NORI ZUZENDUA**

Euskadira bueltatu nahi duten profesional internazionalak.
Esperientzia internazionala daukaten langileak Euskadira erakartzeko beharra duten enpresak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Lehenengo kontratazio urte osoaren (12 hilabete) soldata gastu gordinen %50; 35.000 euroren mugarekin (70.000 euroko soldata baterako kalkulatuta).

**LAGUNTZA MOTA**

Ez da lehiaketa bidezkoa / segidakoa aurrekontua amaitu arte.
Epea urriaren 31ra arte zabalik.

**BALDINTZAK**

- Profesionalarentzat: gutxienez 5 urtez jarraian atzerrian karrera egiten / jarraian egindakoak ez badira, 10 / adina: 50 gehienez.
- Enpresarentzat: kontratu mugagabea eskaintzea.



HELBURUA

Bizkaiko enpresa txiki eta ertainek nazioarteko merkatuetan daukaten sarbidea eta presentzia handitzea.



NORI ZUZENDUA

Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak (3-100 enplegatu), baldin eta Foru Dekretuaren I. eranskinean bildutako zerbitzu edo sektore produktiboetan jasotzen den jardueraren bat egiten badute.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Enpresa beste herrialde batean sartzeari xede duten proiektuetarako diru laguntza. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Pertsonal gastuak:
 - Dena delako herrialdean egonaldia egin behar eta horrek daukan kostua, bidaiak direla-eta, edo herrialde horretara bideratutako langileak direla-eta; eta
 - atzerriko merkataritzan espezializatutako 35 urtetik beherako langile teknikoek kontratazio berria (diruz lagundu daitezkeen gehieneko gastua: 30.000 €).
- b) Enpresaren plantillako langileen bidaia eta ostatu gastuak (mantenua alde batera utzita).
- c) Kanpo kontratazioak, hala nola internazionalizazio planaren lanketa, azoketan parte hartzeagatik kostuak, aholkularitza zerbitzuak eta produktu berri bat merkaturatzeko edo lehendik zegoen bat merkatu berri batean sartzeko behar diren profesionalak kontratatzeak gastuak, kanpo aholkularitza eta azterlanak, prestakuntza gastuak (hizkuntza prestakuntza alde batera utzita eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko kopurua 1.500 €-koa izanik), eta baita sustapena eta publizitatea ere.



LAGUNTZA MOTA

Laguntzen zenbatekoa:

- Diru laguntzaren portzentajea aldakorra izango da (%60 eta %0 bitartean, proiektuak lortutako puntuazioaren arabera).
- Erakunde onuradunak eman beharreko gehieneko zenbatekoa: 60.000 euro.

Minimis laguntzei buruzko 1407/2014 (EB) Araudiari loturik eta beste batzuekin bateragarria (jardueraren kosturaino).

Sozietate kudeatzaileak modu minoritarioan eta aldi baterako inbertitzen du, Fondoan bitartez, enpresa ez-finantzario eta kotizazio ofizialik gabekoen kapitalean. Proiektuaren sustatzailearen profila nolakoa den, eta inbertsio helburua zein den, hiru motatako fondoak kudeatzen ditu:

Fondo jeneralistak

Enpresa **industrialetan** eta industriari lotutako zerbitzuetan egindako inbertsioa

Hazteko potentzial **handia** daukaten enpresa berritzaileak

Negozio / merkatu berriak garatu eta bertan inbertitzeko proiektuak dauzkaten enpresak

Ekintzailetza fondoak

Enpresa berritzaileak

Informazioaren **teknologia** berriak modu **intentsiboan** darabiltzaten enpresak

Bioteknologiako enpresak.

Lanpar fondoak

Langileek enpresaren alor guztietan parte hartzea sustatzen du

Enpresaren finantzaketa hobetzen laguntzen du

Kapitala, lana eta ezagutza modu konprometituan bateratuz, proiektuak sustatu, mantendu eta garatzeko

Enpresa bakoitzaren beharren arabera kokalekuak, SPRI Taldeko sozietateen bitartez kudeatuta.

SPRILUR	Proiektu industrialak ezarri eta kokatzeko lurzoru eta poligono urbanizatuak.
PARKE TEKNOLOGIKOAK	<p>Parke teknologikoen sarea. Teknologikoki aurreratuak diren enpresak, ikerketa zentroak eta askotariko erakundeak hartzen dituzte; hori dela eta, I+Garen erreferentzia gunea dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Arabako Parke Teknologikoa</u> • <u>Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea</u> • <u>Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea</u>
INKUBAGAILUAK - BICak	<p>Oinarri teknologikoa edota berritzailea daukaten enpresa berrientzako inkubagailu gunek (START-UPAK):</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>BIC ARABA</u> (Araba) • <u>BIC BIZKAIA EZKERRALDEA</u> (Bizkaia) • <u>BIC BIZKAIA</u> (Bizkaia) • <u>BIC GIPUZKOA</u> (Gipuzkoa)



LA EMPRESA VASCA ESTÁ AQUÍ

sPRI.eus

Ayudas | Subvenciones | Formación | Jornadas

